

XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

5061

ERABAKIA, 2013ko urriaren 10ekoa, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluarena, Arkitektura Goi Eskola Teknikoaren Arautegiaren aldaketa onartzeko dena.

1.– UPV/EHUko Ikastegien Oinarrizko Arautegiak 11. artikuluan dioenez, Ikastegiko Batzarrak batzorde iraunkor bati eskuordetu ahal izango dizkio bere eginkizunak.

2.– Egoki ikusita batzorde hori sortzea, Arkitektura Goi Eskola Teknikoko Batzarrak, 2013ko irailaren 11ko ezohiko bileran, erabaki zuen aldatzea indarrean dagoen arautegia (2013ko urtarrilaren 25eko EHAA), aipatutako batzordea sortu eta arautzeko.

3.– Gobernu Kontseiluari dagokio ematea behin betiko onespena ikastegien arautegietan egingadako aldaketei.

Ondorioz, idazkari orokorrak hala proposaturik, gobernu kontseiluak

ERABAKI DU:

Lehenengoa.– Arkitektura Goi Eskola Teknikoaren Arautegia aldatzea, artikulua hau sartzeko:

«1. bis artikulua.– Ikastegien arautegi markoaren 11. artikuluekiko komunztadura.

Ikastegiko Batzarrak Batzorde Iraunkorra izango du, era honetara osatua: ikastegiko zuzendaria, batzordeko burua izango dena; idazkari akademikoa, batzordeko idazkaria izango dena; eta ondoren aipatzen diren kideak, Ikastegiko Batzarreko ordezkarien artetik aukeratuak eta era honetara banatuak:

- Unibertsitatearekin lotura iraunkorra daukaten irakasle eta ikertzaileen sei ordezkari
- Gainerako irakasle eta ikertzaileen ordezkari bat.
- Ikasleen bi ordezkari.
- Administrazio eta zerbitzuetako langileen bi ordezkari.

Ahalegina egingo da gizonen eta emakumeen kopurua orekatua izan dadin batzordean.

Batzorde Iraunkorreko kideak Ikastegiko Batzarrak izendatuko ditu, zuzendaritzak proposatuta. Batzordeko kideek utziko diote kide izateari hautatuak izan ziren taldekoak izateari uzten badiote, bai eta UPV/EHUren Estatutuetako 166. artikuluan aipatutako arrazoiengatik ere.

Ikastegiko Batzorde Iraunkorrak eskuordetuta izango ditu Ikastegiko Batzarraren eginkizun guztiak, eskuordetu ezinak izan ezik, Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 10. artikuluko 3. atalari jarraiki. Era berean, Batzorde Iraunkorraren funtzionamendurako oinarrizko arauak izango dira Arkitektura Goi Eskola Teknikoaren Arautegian Ikastegiko Batzarrerako ezarritakoak; eta arautegi horretan halako araurik ez badago, aplikatuko dira Ikastegien Oinarrizko Arautegian Ikastegiko Batzarreko ezarritakoak.

2013ko azaroaren 21a, osteguna

Batzorde Iraunkorra aldatuko da Ikastegiko Batzarra aldatzen denean.»

Bigarrena.– Agintzea akordioa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin eta argitaratzen den egunean bertan sartuko da indarrean.

Leioa, 2013ko urriaren 10a.

Errektorea,
IÑAKI GOIRIZELAIA ORDORIKA.

Idazkari nagusia,
JOSE LUIS MARTÍN GONZÁLEZ.